

OBABAKOAK

Bernardo Atxaga

Jone Moragues 3°C

Mayo de 1997

AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA 1

2. EGILEA: BERNARDO ATXAGA 3

OBABAKOAK

3. LEHENENGO SEI IPUINEN AZTERKETA 4

3.1. Camilo Lizardi erretore jaunaren jaunaren etxean aurkitutako
gutunaren azalpena 4

3.2. Jose Francisko: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza 5

3.3. Post tenebras spero lucem 6

3.4. Esteban Werfell 7

3.5. Gauero aterako nintzateke paseatzera 8

3.6. Hamaika hitz Villamendianako herriaren ohoretan eta bat gehiago 9

4. AZKEN HITZAREN BILA 10

4.1. Kokapena 10

4.2. Edukina 11

4.3. Egitura 12

4.4. Pertsonaiak 13

4.5. Forma 14

4.6. Ipuinen azterketa 15

4.6.1. Aspaldi, artean gazte eta berde nintzela 15

- 4.6.2. Bagdadeko morroia 15
- 4.6.3. Cocteauk 15
- 4.6.4. Dayoub, bagdadeko morroia 16
- 4.6.5. Eskuarekin agur egiten zion norbait 16
- 4.6.6. Ezkontaurreko izenez, Laura Sligo 16
- 4.6.7. Finis Coronat opus 17 4.6.8. Goizean 17
- 4.6.9. Hans Mensher 17
- 4.6.10. Ipuin bat bost minututan eskribitzeko 18 4.6.11. Klaus Hanhn18
- 4.6.12. Margarete, Heinrich 18
- 4.6.13. Ni, Jean Baptiste Hargous 19
- 4.6.14. Ondo plajiatzeko metodoaren azlpen laburra eta adibide bat 19
- 4.6.15. Pitzadura bat elur izoztuan 19
- 4.6.16. Rhineko ardo bat hartuz 20
- 4.6.17. Samuel Telleria Uribe 20
- 4.6.18. Wei Lie Deshang 20
- 4.6.19. X eta Y 20
- 4.6.20. Zuzia iratxekirik daoenean bizi da 21
- 4.7. Eritzi orokorra 22

5. BIBLIOGRAFIA 23

EGILEA

Bernardo Atxaga, Jose Irazu Garmendia benetako izenez, Asteasunen jaio zen 1951.eko Uztailaren 27an. Bere lehen lan literarioak Euskal literatura 72 antologian argitaratu zituen, 1972.ean. Geroztik lan asko argitaratu ditu:

- *Ziutateaz* (nobela laburra) 1976, Donostia.
- *Etiopia* (poema liburua) 1978, Bilbo.
- *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (haur liburua) 1980, Donostia.
- *Ramuntxo detektibea* (haur liburua) 1980, Donostia.

- *Sugeak txoriari begiratzeko dionean* (ipuinak) 1984, Donostia.
- *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (ipuinak) 1984, Donostia.
- *Oraingo izen gabe* (zine-gidoia) 1986.
- *Henry Bengoa, inbentarium* (testua) 1986, Donostia.
- *Obabakoak* (narrazioak eta beste) 1989, Donostia.
- *Antzoki iluna* (irriti gidoia) 1990, Donostia.
- *Behi euskaldun baten memoriak* 1991, Iruina.

Obabakoak, Bernardo Atxagaren aurreko lan gustiek posible egin duten liburua da. Argitaratu azaldu gabeko hainbat lanez gainera, azken urteotan hain hemenka agertzen diren zenbait ipuin biltzen dira bertan.

LEHENENGO SEI IPUINEN

AZTERKETA

LIZARDI ERRETOREAREN ETXEAN A CAMILO URKITUTAKO GUTU-NAREN AZALPENA

Bi ikuspuntu eta narratzaile ezberdin bereizten dira ipuin honetan; Camilo lizardiren gutuna aurkitzen duenaren ikuspuntu objektiboa eta gutunaren idazlearen ikuspuntu subjektiboa hain zuzen. Bi parte hauek lehenengo pertsona idatziak azaltzen zaizkigu. Beraz honela geldituko litzateke kanpo eta barne egitura ere. Gutunaren idazlearen hizkuntza, euskara zaharra da eta ezaugarri honek bi garai desberdinak baldintzatzen ditu: mendearen hasiera eta gaur eguna. Obaba da narrazioaren eszenatoki nagusia.

Gutunean basurde bihurtzen den Javier mutikoaren istorioa azaltzen da. Guztiek pertsona arraroa bazala hartzen zuten mutila basurde bilakatu delaz ohartzen dira denborarekin. Mutikoa baztertu dutenek ordaindu beharko dituzte orduan basurdearen atakeak. Azkenean, mutikoa sufritzen ari dela aitzakiarekin, betidanik Javier defenditu duen Matiasen hura hiltzeko baimena eskatzen dio Camilori. Baina honek bukatu behar du hilketarekin. Gaia, Javier mutikoaren aita ezezagunaren aitormena izango litzateke.

Ipuina 1903. urtearen inguruan kokatzen da. JOSE FRANCISCO OBABAKO ERRETORETZEAN AZALDUTAKO BIGARREN AITORTZA

Ipuin honetan aurrekoan azaldutako berezitasun berdinak ematen dira forma aldetik, egitura eta narratzaileen ikuspuntuei dagokionez. Ezberdintasun bakarra, gutunean erabilitako euskera zaharra narratzaileak gaur eguneko euskarara pasatu duela datza. Ipuin honetan narrazioa naguzitzen da, nahiz eta zenbait elkarrizketa agertu.

Gutun honetan agertze den aitormena obaban 1925. urtean kokatzen da, gerrate haundiaren ostean.

Protagonizta eta bere anaiaren semea eskatutako barkamena grabatu zuen lehenengoak magnetofoni batean. Gure protagonistak, aita-ama, Natalio agurea eta berak eta bere anaia batek neska berarekin izandako harremanaren hondoriozko semearekin bizi zen. Umearen aita nor zen definitu gabe gelditzen da. Natalio, aita eta ama hil egin ziren eta anai batek Montevideora aldegin zuen. Umea mutua zen eta indartsua ere bai eta honek arazoak sortzen hasi zuenez, basora eraman zuten mutikoa. Bere ama bilatzera joan zenean hil egin zuten eta handik gutxira bere anaia Jose hilda agertu zen ere. Egoera jasangaitz honetan, protagonistak, Franciscok, bere semea – edo bere anaiarena – hiltzen du eta gero bere buruaz beste egiten du.**POST**

TENEBRAS SPERO LUCEM

Ipuin honen toki – kokapena Obaba da berriro ere, Albania auzoa hain zuzen ere. Bertara andereño bezala doan emakumeari zaila egingo zaio bakardadera ohitutzea. Manuel bere ikaslea izango da lagun bakarra eta honek egiten dituen komentario itsusi batzuen erruz guztiek txarto begiratuko dute andereño gaztea.

Iñoren gutunak jaso barik ez du bertan gehiago jarraitzerik nahi baina hiru eskutitz heldze zaizkio batean eta aurrera jarraitzeko indarra berpizten da bere barnean.

Ipuin hau hirugarren pertsonan idazten du narratzaileak, baina gure maistra protagonistak bere egunkarian egunerokoak eta bere bakardadea isladatzen du, lehenengo pertsonan arituz. Hau izango litzateke gaia; bakardadeak pertsona baten bizitza jarraitzeko animoak hautzi dezakeelaren ideia. Narratzailea subjektiboki eritzen da batez ere.

Egiturari dagokionez, maistraren egunkariaren erreflexioak eta narratzailearen ikuspuntua bereiziko nituzke. Narrazioa eta sentimenduen aldarrikapenaren deskribapena dira formarik erabilienak. **ESTEBAN WERFELL**

Esteban Werfell-ek bere bizitza aldatu zuen gertaera idazten du. Hamalau urterekin, bere bere aitarekin bizi homen zen Obaban. Bertako ume erlijiosoek elisara joatera gonbidatzen dute Esteban, honen aita jainkogabea dela jakinik. Elizan zorabiatu egiten da eta lotan, neska bat hurbiltzen eta bere helbidea ematen diola amesten du. Aitari kontatzen dio eta honek helbide hartara gutunak idazten laguntzen dio. Neskaren erantzunak jasotzen hasten da baina egun batean neskak mutil bat ezagutzen duela antzematen duen gutuna jasoko du. Laster pasatuko zaio guzti hura Estebani baina, hala ere Hamburgora, bere aitare jaioterrira, joateko duen lehenengo aukeran neska azagutu nahi du. Orduan bere aita antolatutako plan bat zela guztia adierazten dio haren baiduna izandako batek. Bere aita, hilda jadanik, gutun batean idatzita utzi zion gutunak berak idazten zituelaren aitormena.

Esteban Werfell-ek, ipuinaren protagonizta, tonu alaia erabiltzen du bere esperientzia hau lehenengo pertsonan kontatzeko. Egitura aldetik, idatzi aurretik Estebanek inguruneari buruz ematen azalpenak eta kontakizuna bereizten dira. Gaia, pertsona batentzat bere hizkuntza eta jaioterriko ohiturak zelako garrantzia duen izango litzateke; kasu honetan aitaren Hansburgorko mirespena. **GAUERO ATERAKO NINTZATEKE PASEATZERA**

Ipuin hau bi zatitan banatzen da. Lehenengoa Katharinen azalpena izango litzateke eta bertan bere bikotea zenarenganako emakume baten maitasuna aldarrikatzen da oso era berezi batean; treneko bidai baten azlpenarekin tartekatuz lehenengo pertsonan idatzita.

Bigarren kontakizuna, Mariren azalpena da. Marik bere familiarekin paseatzera ateratzen zela azaltzen du. Egun batean, eskolako ikaskideekin tren geltokira doa, Ameriketara joateko eramango dituzten zaldi batzuk ikustera. Marik ez dio usten horietako bakoitza bere Kent zaldiarekin konparatzeari. Etxera bueltatzen denean Kent ez dagoelaz ohartzen da.

Bi kontakizunek erlazio handia dute. Lehenengoan pertsona maitatu bati buruzkonostalgia aldarrikatzen da eta bigarrean desagertu egingo den bste izaki maitatu batenganako mirezpena ematen da. Horrez gain Mariren maistra Katharina izatea suertatzen da.

Azken batean gaia maitasun eza izango da. Bietan oso tonu tristea erabiltzen dute lehenengo pertsonan aritzen diren bi protagonistak. **HAMAIIKA HITZ VILLAMEDIANAKO HERRIAREN OHORETAN ETA BAT GEHIAGO**

Protagonista da ipuin osoko narratzailea, beraz lehen pertsonan arituz bere eritziak eta gogoetak eskaintzen

dizkigu.

Lehenengo partean haurtzaroko istorio bat kontatzen digu. Eta ondorio bezala bere medikuak emandako kontseilua azaltzen digu; hamaika hitz eta bat gehiago gogoratu behar dela, ez gehiago ezta gutxiago ere. Hau dela eta, Villamedianan pasa zituen egunak hamaika parte txikietan banatzen ditu eta bertako laguneei gehiegi edo gutxiegi gogoratzeak egin zien minak azaltzen digu:

Hasiera batean Villamediana herria deskribatzen digu, bertako bakardadea, isiltasuna eta beraren eta hiriaren arteko ezberdintasun handia. Bertako pertsonaia ezberdinekin izandako harremanak azaltzen dizkigu; esate baterako, hain jakintsua baina erdi zoraturata zeuden Julian eta Benito agureekin elkarriketak eta baita Tassis edo Daniel lagun minarekin izandakoak ere. Azken partean pertsonaia erdi erotuta ere agertzen zaigu, bere burua kondetzat hartzen zuen poemalaria, enanos deitzen zuten pertsonaia berezia.

Ipuin honen gaia hiriko bizimodu eta herri bateko bakardadearen arteko ezberdintasuna izan daiteke eta baita memoria egokia izatearena ere. **AZKEN HITZAREN BILA**

KOKAPENA

Toki – kokapenari dagokionez istorioaren muina Obaba herrialdean eta honetaraino gure protagonistak eta bere abiakideak jarraitu behar duten bidea aipa daitezke. Obaba Euskal Herriko leku menditsua da, txikia baina gauza berezi azkoren gertalekua. Horrez gain, tartekatzen diren ipuinen leku – kokapenak ezberdinak dira, nahiz eta batzutan Obaba herria ere izendatu. Hanburgo da askenetan gertakizunak jasotzen dituen hiria.

Liburuaren zati honen istorio inportantea hogeigarren mendearen erdiko edo azkenengo urteetan kokatuko nuke, Protagonistaren osabak oraindik bizirik, hemeretzigarren mendeko gizona dela antzematen duelako. Istorio nagusia asteburu batean zehar gertatzen da. Amaiera, berriz, gure protagonistaren bizitzaren zahartzaroan kokatzen dugu. Nobela linealki narraturatuta dago. Kotxeren existentzia automatikoa da ere.

Bigarren parte honen generoa nobela da, nahiz eta etengabe ipuinak tartekatu.

Espreaerari dagokionez narrazioa da ugariena. Honi lotuta hainbat deskribapen aurkitzen dugu. Elkarriketa berriz ez da sarritan agertzen, ipuinetan normalean, narrazioa naguzitzen delako.

Narrazioa: Eta bapatean oihan guztia ixildu egin zen, ixildu egin ziren txoriak, ixildu egin ziren sugeak eta arrainak, ixildu egin ziren gainerako animalia guztiak ere, eta ixiltasun hartan *ayamanan* txoriaren nigarra bestarik ez zen gelditu, deika eta deika oihaneko desolamenduan. Eta orduan, Laura Sleldon –Laura Sligo bere ezkontarreko izenez– kuxkurtu egin zen ikararutako ume bat bezala, eta nigarrez hasi zen, bera ere nigarrez. Eta guk, Cesar Calvok eta biok, utzi egin genion nigar egin zezan... (238.or).

Deskribapena: *Nagazaki* zen beste taberna horren izen bitxia, eta herriaren irteeran zegoen. Hemen ere jokatu egiten zen, baina altzairu eta plastikozko mahai koloretzuetan. Hara joaten zirenentzat, ordea, herriko tabernak ez ziren ideologiaren arabera sailkatzen, baizik eta egoera ekonomikoak agindu bezala. Hala, plazako aberatzena zen, lur eta ondasun asko zituztenena... (146.or).

Elkarriketa: `Zer hari haiz begiratzen?' gineratu zuen nire ixiltasuna zela eta.

`Barka ezak,' desenkusatu nintzen-. `Baina begira zer dagoen emen.'

`Hire osabak idatzitako zerbait?'

`Bere itzulpean batzuk direla iruditzen zaidak, eta oso intentzio gaiztoarekin ...'. (273–274.orr). **EDUKINA**

Hautzaroko argazki baten misterioa argitu nahian eta bere osabarekin ipuin – irakurketa bat gauzatzeko intentzioarekin, gure protagonistak lagun batekin doa obabara asteburua igarotzera. Gauez sekretua argitzen saiatuko dira baina, misterioan areagotuko dira Smith pertsonaiaren agerpenarekin. Hurrengo egunean, osabarekin gozalduta eta ipuin – kontaketa ondoan, aurreko gaueko misterioak piskanaka argitaratu atera dira. Gure protagonista guzti honen ondorioz eta jadanik denbora luzea pasata, beste pertsona batean bihurtuta agertuko zaigu bere bizitzaren azken momentutan.

Nobela–erdi honen gaia, gure protagonistak, bizitako guztia idatzi ondoren, azken hitza aurkitzeko duen nahi ez–betea izango litzateke. Guztia bilatze horren inguruan mugituko da.

Idazlea gure protagonista bera da; beraz subjektiboa da nobela. Ipuinetan ere, narratzaile bakoitzak bere eritzi propioak eskaintzen ditu lehenengo pertsona arituz. Erabiltzen dituzten tonua desberdinak dira baina, melankolia eta tristura apur bat nabaria da kapitulu guztietan.

EGITURA

Liburuaren bigarren parte hau hogeik kapituluaren egituratuta dago. Bakoitza istorioaren muinari jarraitzen zaio, gehienetan ipuinez baliatuz. Bakoitzaren barne – egituraketa banaka azalduko dut geroago, kapitulu bakoitzaren azterketan.

Hasiera, argazkiaren misterioa argitzeko nahiak bultzatuko duen bidaiaren prestakuntza izango da. Muina, Obaban gertatutakoa osotuko luke. Eta azkenek, amaiera, gure protagonistaren bukaera tristea izango litzateke.

PERTSONAIAK

Pertsonaiarik garrantzitsuenak gure protagonista da. Bere azken hitza aurkitzearen inguruan mugitzen da istorio osoa. Deskribapen fisikorik ez dago baina normala da bere izakera deduzitzea; pertsona argia, azkarra eta helburu markatuekin. Baina bere bizitzaren azken aldia, 360 gradu bira ematen du hura zoritzarrez.

Obabarako bidean bisitan lagunduko dion adizkidea pertsonaia garrantzitsua ere bada. Bere agerpenak kutsu berezia ematen dio igandeko ipuin – kontaketa.

Protagonistaren osaba, Montevideoko osaba, Amerikara alde egin behar izan zuen eta bertan denbora luzea igaro zuena da nire eritzi pertsonaiarik bereziena. Bere ideia argiak eta bere arintasuna eta azperientzia liluragarriak dira. Bere janzkerari buruzko deskribapen bat besterik ez dago.

Smith, gure protagonista eta adizkideari hitzegiten hasi zitzaizen agure interesgarri, luzeak eta atsegina, osabaen lagun mina dela suertatzen da. Jadanik pertsona heldua da eta ezkondua Dublinoan bizi dena.

Okerra eta Albino Mario eta beraien artean garai batean gertatu zena da, gure protagonista Obabarako bidaiaren egiteko bultzatzen duena.

Gero banaka aipatuko ditut ipuin bakoitzeko pertsonaiak.

FORMA

Formari dagokionez liburuan zehar konparazioak oso ugariak dira aipatu beharra dago.

Zabaltze ari zen gure aurrean, indi oilarraren isatsa bailitzen... (200. or).

(...) festara lehen bait lehen ailegatu beharra daukan zeremonia maisu bat zirudien. (257. or).

Fusila jasotzera zihoazenean telefonoa hoska hasi zen, urduri, eszena hari begira ego eta izutu izan balitz bezala. (308. or).

Pertsonifikazioak ere etengabe agertzen dira.

Halere, bere biurritasuna eta guzti, korretura ez zitzaigun oso nekagarria gertatu, (...). (261. or).

Pozak itxutu egiten zuen, (...) (298. or).

Irla mugimendu eta kolorez jantzita zegoen, (...) (309. or).

Metaforak ere badira baina aurrean aipatutakoak baino neurri txikiagoan.

(...) su hartzen zuen paisaiak ematen zion berotasunarekin. (263. or) = hiperbolea ere izan liteke.

Maila fonokoari dagokionez, onomatopeia bat aipatuko dut: Eta tropela gure aurretik ziz-ziz eginez (...) . (266. or).

Orokorrean, errekurso estilistiko ugariz hornitutako liburua dela esan dezakegu. Aberaztasun honek hobeto deskribatuta usten ditu lekuak eta enfasi handiagoa jartze dio kontakizun bereziei. **IPUINEN AZTERKETA**

Aspaldi, artean gazte eta berde nintzela

Azken hitzaren bila – zati honen lehen kapitulua da hau. ,gure protagonistak haurtzaroko argazki bateko misterioa argitzeko adizkide bat deitzen du berarekin Obabara, haurtzaroko herria, joan dadin. Argazkiko okerra gazteak eskuetan zeukan muskerra badirudi bere ikaskide Albino Mariaren belarretik sartu eta hau ondorioz tontoldu zela. Misterio hau argitu nahiean eta Obabarekin ipuin–irakurketa gauzatzeko intentzioarekin Obabara aldegiten dute gure protagoniosta eta bere adizkiddea. Bideko *pub* batean okerrarekin hitzegiteko aukera dute baina honek ez die gehiegirik argitzen; defenditu egiten du bere burua.

Episodio honen argazkikomisteriioa argitzeko gure protagonistak dituen irrikak izango dira.

Kapitulu honetako protagonista narratzaile bera da, beraz lehenengo pertsinan eta subjektiboki aritzen da. Narrazioa eta gure partsonaia naguziaren erraflexioak dira naguzi, baina bera eta bere osaba, eta bera eta bere adizkidearen arteko elkarriketak ere badira.

Bagdadeko morroia

Kapitulu honetan gure protagonistak, Obabako bideari ekin aurretik, bere lagunari kontatzen dion ipuin ezezagun bat azaltzen da; beraz hirugarren pertsona erabiltzen du. Bagdadeko morroia heriotza ikusi zuen azokan eta beldurrez Ispahan herrira aldegitako baimena eskatu zion naguziari. Naguziak baimena eman ondoren morroia amenazatu beharra zuen galdetu zion heriotzari eta honek, trebeki harridura keinua egin ziola baieztatu zuen, gau horretan bertan Ispahanen harrapatu behar zuela, morroia bertatik oso urrun zegoelako.

Ipuin laburtxo honen gaia heriotzaren botere deseginezina antzematen da; ezin dugu harengandik aldegin. Gehiegoa elkarriketa moduan antolatuta dago. **Cockteauk** Aurreko ipuina komentatu hondoren, gure protagonista eta bere lagunari, Okerraren *pub*ean oraindik, edanda dagoen gizon heldua hurbiltzen zaie ipuin hobia kontatzeko asmotan baina, urduritasunak eta zaratak ez dio usten bere asmoak betetzen. Bi lagunek harriturik *pub*etik irtetzen dira eta Obabako bidea hartzen dute. Baina gure protagonistak Bagdadeko morroia ipuinaren amaierari egindako bariazioa bere lagunari erakutsi nahiean zerbeza bat hartzeko geldituko dira. Episodio honetan gure protagonistaren lagun medikuak kantatzen dion ipuin bat tartekatzen da; beraz bi narratzaile subjektibo eta lehenengo pertsonan aritzen direnak daude. Mathilde Loise frantsesak luxusko festa

batera joateko bitxi batzuk eskatzen dizkio lagun bati. Baina izugarri ondo pasa ondoren bitxiak galdu zitzaizkiolaz ohartzen da. Ondorioz beste batzuk erostearen beharrean dirurik gabe gelditzen da. Urte batzuk geroago bere lagunak, beste intentzio batzuekin, bitxiak faltsuak zirela baieztatu zion. Gure protagonista iraganari buruz ari da idazten. Kapitulu honetan obabarako bidea deskribatu egiten du, tximeleta ugaritasuna adibidez antzemanaz. **Bayoub, Bagdadeko morroia** Bagdadeko morroia ipuinaren barietate propioa eskaintzen digu gure protagonistak kapitulu honetan. Bagdadeko morroia heriotzarekin topatu hondoren Ispahun-era aldegin zuen. Bertako Kalbum Dahabin-ek laguntzeko prestatu zen eta honen dedara abiatu ziren. Egunsentia laster helduko zelakoan eta morroia galtzeko arrizkuan, heriotza dendara joan eta bertan morroiaren isladapenarekin ispilu ugari ikusi zituen. Pentsatu barik, ispilu horietako bat hartu eta korrika aldegin zuen. Episodio honetako gaia heriotzaren eskuetatik alde egiteko posibilitatea existitzen dela izango litzateke. Narratzaile hirugarren pertsona aritzen da. **Eskuarekin agur egiten zigun norbait** Lehenengo pertsona erabiliz berriro, gure protagonistak *pubeko* agure zaharraren agerpen berria kontatze digu. Smith-ek lehenengoko ipuina kontatzeko asmotan, magnetofonoa atera eta *Eskontaurreko izenez, Laura Sligo* ipuin erreala kontatzeari ekingo dio. Elkarriketetan betetzen da kapitulu honetako zatirik handiena. Muina kapitulu honetan Smith jaunaren agerpen berri eta bitxia izango litzateke. **Ezkontaurreko izenez, Laura Sligo** Smith-ek kontatzen duen ipuin honetan, dirudienaz erreala, Laura, Cesar Calvo eta Smith bera, Amazoniako oihanean Laura Sligo-ren senar desagertuta, ashaninkatribuaren lurretan aurkitzeko edo hari buruz zerbait jakiteko hara abiatu ziren. Smith-ek, suge batek pozinduta, tribuko harrera ezin hobea izango duen arren eta sendatu bazuten ere, ez zuten Lauraren senarrari buruz, Tomasi buruz, seinalerik eman. Smith, Laurarekin odo maiteminduta, zerbait aurkitu nahian, tribuko buruzagia Laurare senarra zelaz ohartu zen. Ez zuen ezer esan baina bueltarako bidean Laurak egia ezagutzen zuela adierazi zien eta horrez gain berarekin aldegitako asmoak erakutzi zizkion. Horrela Dublinera aldegingo dute biek. Ipuin honen bitartez, Smith-ek bere bizitzako gertaerarik garrantzizkoenetariko bat kontatzen digu, bere maitasuna Laurarenganako aldarrikatuz Amazoniako tribuen bizimoduak eskaintzen duen bake eta paisai natural galezina izango litzateke. Mr. Smith-ek etengabe deskribapenean eskeintzen dizkigu, oihaneko animaliaen aipamena sarritan eginez. Edozein gauza naturarekin harremanetan bizitzeko utz daitekeela da ipuin polit honen mezua. Nire eritziz ipuinik ederrena da. **Finis Coronat Opus** Smith-ek aldegin ondoren gure protagonistak eta bere adizkide medikuak bidetara jarraitzen diote. Beraien arteko elkarriketa da ugariena kapitulu honetan. Gure protagonista Obabako inguruari buruz mintzatzen zaio lagunari denbora luzean, bertatik egin ohi zituzten bizikleta-lasterketetara buruz. Obaba-ko Hilario txirindulariaren karrerak adierazi zizkion eta baita nola, guztien zorigaitzarako, beste txirindulari batzuekin konpetitzailearen azken gelditu zela ere. Bidetik okerra ikusten dute kotxetik at, musker bat eskuetan nola hartzen duen hautemanez. Azkenez, osabaren etxera heltzen dira. Episodio honetara deskribapen ugari tartekatzen dira Obabako inguruneari buruz eta gure protagonista, lehen pertsona arituz, bere haurtzaroko kontakizunak antzematen ditu. **Goizean** Goizean gure bi lagunak esnatzen dira eta ipuin irakurketa gauzatuko den gelara abiatzen dira. Obaba kaleran gosarorako janaria erosten dagoen bitartean, berak itzulitako ipuin bat irakurtzen dute, bere iloba behintzat plajioaren ondorioz harrituta geldituz. Osabak irakurtzen harrapatzen ditu eta plajioarena gosaldutik hondoren kontatuko diela adierazten die. Kapitulu honetan ere gure protagonista subjektiboki aritzen da, lehenengo pertsona. Egiturari dagokionez, osabaren ipuin itzulita tartekatzen da, kursibaren bitartez muinatik bereiztu nahian. **Hans Mensher** Ipuin-irakurketari hasiera emateko gure protagonistak ipuin labur honekin liluratzen gaitu. Brinnen, Hamburgon kokatu beharra dago narrazio hau. Bertako Hans Mensher pintorearen etxetik pasatzen diren paseatzaileei ez zaie interesatzen bertan 1923. urteko Uztailaren 27an zena. Badirudi pintoreak bere bizitzarekin azken egunetan arabiar paiaiak besterik ez zituela pintatzen, bertako emakume batekin maiteminduta zegoelako. Pintoreak arabiarrek hilko zutela etengabe esaten zuen, baina errotik hartuta izan zen. Normalean, artxiboetan bilatzen arduratzen den paseatzaileak hil zela ziurtatu dateke eta aldi berea, Hans-en maitalea arabiarren kontra salaketa gauzatu zuela ere. Ipuin honen bitartez arabiarren kulturaren ohitura gogorra aldarrikatzen da. Horrez gain, bi arraza eberdinetako pertsonen arteko maitasunaren onarpenaren behar eza isladatzen da. Gertakariarik garrantzitsuenak 1923. urteko Uztailaren 27an eman zen; horren inguruan kontatuta dago ipuina. **Ipuin bat bost minututan izkribatzeko** Gure protagonistak kapitulu honetan ipuin bat bost minututan idazteko teknikak eskaintzen dizkigu adibide batez baliatuz. Beraz gaia didaktikoa da. Lasaitu ondoren, zure hiztegia jaso eta edozein hitz aukeratu ondoren lehenengo esaldia burutu behar duzu. Hemendik aurrera erreztasunez burutu dezakezu ipuinaren ideia generala baduzulako. Narratzaileak, trebeki bigarren pertsona arituz, adibide bat eskeintzen

digu, azalpen didaktikoen artean tartekatzen dena. Aurpegia sare batez estalita zuen andre ederra, eskuak erreak ere zituenak, maite duen gizon baten gutuna jasotzen du, zeinean gizonak aurpegia erra duela adierazten bait dio. Emakumea penatuta, gizon honek maitatu izana uzten dio eta ondoren hiltzen du. Azken ipuin honen gaian, maitasunaren indarra azpimarratzen du. **Klaus Hanhn** Pertsonaiarik garrantzitsuenak ipuin honetan, Alexander anaiaren heriotzaz eroturik dagoen Klaus Hanhn izango da. Gure protagonistak, hirugarren pertsona arituz, Klaus-en eta bere barneko ahotsaen, Alexander bere anaiaren, arteko elkarriketa eta intentzioak azaltzen dizkigu. Klaus diruz jozita jadanik, tortoken irla batera joateko asmoarekin arropa berriak erosi eta bere urtebetetzea ospatzera hiriko errestauranterik garestienara doa. Hegazkina hartu aurretik, edandako guztiak bultzatuta lo gelditzea pentsatzen du. Etengabeko Alexanderrek, ibaian itotako anaia txikiaren ahotsak, aginduak ematen dizkio eta hegaldia galduko duen ustearen anaia txikia ostikoka hasten zaio. Ipuin honen gaia, anaia baten heritza dela eta eragotzita dagoen pertsona baten barne-elkarriketa erotuek osotuko lukete. Nahiko ipuin astuna da erreflexioek osotzen dutelako zatirik handiena eta nire eritziz ez delako oso argi gelditzen ipuinare helburua. **Margarete, Heinrich** Gure protagonistaren laugarren ipuina eta azkena da. Ederrenetarikoa. Heinrich, bere arreba maitatuarengandik urrun bizi den pertsonaia ixil eta bakartiak, hura tren batek harrapatuta hil delaren notizia jasotzen du. Nahazia eta penatuta, bere arrebaren arropak betirako janzea erabakitzen du, berarekin beti gogoratzeko dela zin eginez. Denborarekin gizon bat ezagutzen du, zeinen bere bihotza eta gorputza eskaintzen bait dio eta horrela harreman estua gauzatuko dute, Heinrichen arreba ahastu duela pentsatuz, bere buruaz beste egiten duen arte. Ipuin honen gaiak, pertsona baten bizitzan, arreba batenganako maitasunak hautsi dezakeen beste sentimendu guztiak lantzen du. Ipuina hirugarren pertsona idatzita dago baina narratzailea nahiko subjektiboa da. Trena sinbolo bat bezala har daiteke, Heinrich eta margarete elkar-lotzen zituen sinbolo metaforikoa bezala. Istorioa 1934. urtean kokatzen da. **Ni Jean Baptiste Hargous** Gure protagonistaren adiskideak kontatzen duen ipuin bakarra da. Jean Baptiste Hargous hamazazpi urterekin gudara joan beharra izan zuen eta bertan ezagutu zuen Pierre gaztearekin harreman estu eta ontzaz apurtezina gordetzeko aukera izan zuen. Elkar maite zuten bi lagunak herotzak bananduko ditu, normandarrengandik ihes egiten saiatu zirenean, zaldiek zapelduta hil egin zirelako. Ipuin honen gaiak edozein gerratearen bukaera, beti tristea, isladatzen du; zeinek maitasuna, familia eta kasu honetan adiskidetasunarekin bukatzen bait du. Istorioa 867. urtean kokatzen da, normandarren aurkako gudaren garaian. Jean Baptistek, Narey hirikkoa, lehenengo pertsona arituz bere bizitzaren amaiera kontatzen digu. **Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat** Obabak plajioak onartu eta egiten hastearren arrazoia eta metodoa eskaitzen digu kapitulu honetan. Obabarentzat idazle gorenak, Axularrek, plajioek Euskal literatura bultzatu zutela ulertarazten dio amets baten bitartez, guztiak plajiatzen zutela adieraziz eta plajioa egokia egiteko behar diren pausoen zerrenda gauzatzera behartuz. Pikuak ematen dizkio Axularrek ametsen eta errealtatean jadanik pikuak jaten ditu eta hauen laguntzaz plajiatzeko metodo erreza eskeintzen digu. Ipuin zaharra eta norberaren hizkuntzara itzulita dagoen baten mezuari jarraituz pertsonaia eta objektuak aldatzea nahikoa da plajioa burutzeko. Osaba lehenengo pertsona aritzen da, bere esperientzia propioak aurkeztuz. Bere azalpen honen gai ezkutatuta, literatura bultzatzeko plajioaren beharra da. Euskal herriko piku arrunten sinbologiarekin jokatzen du idazleak. **Pitzadura bat elur izoztuan** Ipuin hau osabak plajioaren metodoa erabiliz idatzitako bere lehen plajioa da; adibide bat. Philippe Auguste Bloy mendigoizalea pitzadura batean erori zen. Berarekin lan egiten zuen Mathias Reimz-ek haren bila abiatu zen baina adiskidearen aurrean zegoela, bere emakumearekin oheratzen zela aitortzera bultzatu zuen. Amorratuta, Mathiasek ez zuen haren bizitza. Philippek nekez pitsaduratik ateratzea lortu zuen baina Mathiasek bultzatu egingo zuen berriro behera jausi arte. Osabak hirugarren pertsona idatzitako ipuin honen gaia, norberaren emaztea eta lagun minaren arteko erlazioaren ondorioz, adizkidearenganako gorrotoa da. **Rhineko ardo bat hartuz** Irakurketa-saioren ondoren ardo baten laguntzaz hiru lagunak osabaren bizitzaz mintzatzen ari dira eta honek Montevideoko adizkide on baten existentziak hitzegiten die; Samuel. Bat batean etxe aurrean aparkatu duen kotxe batetik, okerrak lagunduta, gaueko Smith jauna ateratzen da eta pertsonaia berezia hura osabaren Montevideoko lagun mina dela suertatuko da. Kapitulu honetan Amerikara joan behar izan zuten euskaldunen egoera eta bizitza aipatzen da. Elkarriketak betetzen du parterik ugariena eta badirudi piskanaka gauzak argitzen doazela. Kapitulu honetan gure protagonista lehen pertsona aritzen da berriro. **Samuel Telleria Uribe** Episodio honetan gure pertsonaiek okerraren inguruan mugitzen zen misterioa argituko dute, Smith osabarekin mintzatu bitartean. Okerra muskerren defentza parte hartzen duen pertsonaia dugu. Misterio hau argitu ondoren, osabarenera bueltatuko dira eta Samuel ipuin baten kontaketa ekingo dio. Gaia aurreko

misterioen soluzio izango da. **Wei Lie Deshang** Samuelek hirugarren pertsona erabiliz kontatze due ipuina da hau. Nei Lie Deshang-ek Aga Kubali gobernariaren kontra aldatzearen ondorioz, bere gurasoen bizitzekin bukatu zuelako, bere gerlari estadia galdu zuen. Dirua bildu ondoren palazio izugarria eraiki zuen eta mendeku bila ibili zen ordutik Wei Lie trebea, annamitar gerlari onak eta inuzenteei beraien jainkoa zela sinestarazi zien eta hauek kristoko hilketa gauzatu zuten Aga Kubali-ren lurraldeetan. Honek ez zuen inoiz jakingo nor izan zen bere semea hil zuena, annamitarrek bere jainkoaren, Mohameren, partez zihoazela adieraziko diotelako. Ipuin honen gaia, gurasoen heriotza gauzatzen dutenen kontrako mendeku nahia izango litzateke. Horrez gain, Siddarta, Mohamed eta annamitarren kulturaren zenbait gauza aipatzen dira. Narrazioa da gehien erabilitako esprezaera nahiz eta elkarrizketa agertu. **X eta Y** Gure bi adizkideek osabari kontatzen diote Okerrarekin gauez eta orduan izandako elkarrizketak. Osabak muskerrek gauzatu dezaketen tontelkeria existitzen ez dela adierazten die eta beste biek gaia bukatutzat hartzen dute. Smith aurretik eta gero bere bi lagunak euren etxeetara bueltatzen dira. Baina gure protagonista okerraren etxean animalien-defentsaz arduratzen den taldearen plakarik ez zegoelakoan, bertara bueltatze da soluzio bat aurkitzeko asmoz. Okerrak harrapatu egiten du eta gaizoak gau guztia pasa beharko du lotan muskerren artean. Goizean Albino Mariak esnatuko du eta presaka aldegingo du bertatik. Kapitulu honen gaiak, gehiago jakiteko irrika bultza dezakeen ondorioak landuko lituzke. Elkarrizketa kapituluaren hasieran ematen da batez ere, hiru lagunaren artean, eta gero narrazioa naguzitzen da. Gure protagonista lehenengo pertsonan aritzen jarraitzen du. **Zuzia iratxekirik dagoenean bizi da** Kapitulu honetan argitzen da zergaitik idatzi duen aurreko guztia gure protagonista; aurkitu ez zuen azken hitza aurkitzekotan. Hau da nobelaren bigarren zati honen gai nagusia. Gure protagonista zahartuta jadanik, bere adizkide medikuarengana joan behar izan zuen bere geroz eta handiagoa zen gorrieria kontrolatu zezan. Baiza medikuak musker bat zuela adierazi zion eta baita mina egiten hasia ziola ere. Baina gure protagonista ez gauza garrantzitsutzat hartu ezta geroago bere osabak hilko dela adierazi zionean ere. Berak Albino Mariorekin jolasten ibiltzea nahiagokoa zuen txorakeriak entzun baino lehen. Agertzen den esprezaera bakarra narrazioa da eta gure protagonistaren, jadanik aldatuta, erreflexio infantilak bertan tartekaturik. Lehenengo pertsonan aritzen da. Ipuin luze honek, sineskera edo obsezio batek sortzen duen errealitatearen indarra azpimarratzen du oso modu gogorrean. Benetan meritua du gure Bernardo Atxagak.**ERITZI OROKORRA** Liburu osoa, aurreko ipuinak ere kontutan izanik, oso ederra iruditu zait. Ipuinak entretenigarriak izateaz gain, interesgarriak ere badira. Badirudi helburu didaktikoren bat duela bakoitzak, istorio berezi eta gai latzak tratatzen dutenei buruz ari direlako etengabe. Amaiera, benetan esperoezina, oso gogorra da. Bortitza da ipuin eta fantasiaren inguruan bizi izan den pertsonaren bizitza halako amaiera latza izatea. Ume bat izatetik, gizon heldua izanda, berriro ume bat izatera pasatu da bere bizitzan zehar. Behintzat horrela interpretatzen dut nik. Nahiz eta liburu luzea izan azkar irakurtzekoa izango litzateke, zenbait deskribapen kenduko balituzte. Gehien atsegin zaidana kontatzen diren ipuinen bitzitasuna da. Beti daukate kutsu berezia, zeinek irakurlea liluratzen bait du. Horrela gertatzen da amaierarekin ere, espero ez duzunarekin aurkitzen zara. Beti harritzen gaitu Bernardok era honetara, *Behi euskaldun baten memoria*-n adibidez. **BIBLIOGRAFIA**OBABAKOAK Bernardo AtxagaErein LiteraturaAdorez 2 HiztegiaErein

1

4